

# Kabia.

## Euskara nola txertatu erakundearen hasieratik

(Dokumentu hau Kabiako Gobernu Batzordeak onartu zuen, 2015eko urriak 8an egindako bileran)

<b>1. ABIAPUNTUA</b> .....	<b>1</b>
1.1. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA BERE ORGANISMO AUTONOMOEN JARDUERA ESPARRUAN 2013-2017 ALDIRAKO. ....	1
1.2. 2015-2017KO GIPUZKOAKO ZERBITZUEN MAPA .....	3
1.3. KABIA: ERATZEA ETA ESTATUTUAK .....	3
<b>2. KABIAKO EREDUA ZEHAZTEN</b> .....	<b>4</b>
2.1. IZAERA.....	4
A) <i>Egoitzak: jendaurrekoa eta gizarte izaerakoa</i> .....	4
B) <i>Kabiako Zerbitzu Zentralak: Euskarazako administrazio atala</i> .....	5
2.2. DERRIGORTASUN INDIZEA .....	7
2.3. LANPOSTUEN EUSKARA MAILA .....	11
2.4. LEHENTASUNAK.....	13

## 1. ABIAPUNTUA

### 1.1. EUSKARAREN ERABILERA NORMALIZATZEKO PLANA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN ETA BERE ORGANISMO AUTONOMOEN JARDUERA ESPARRUAN 2013-2017 ALDIRAKO.

Gipuzkoako Foru Aldundian euskararen erabilera eta sustapena arautzen dituen marko orokorra Euskal Autonomia Erkidegoko 1982ko azaroaren 24ko 10/82 Oinarrizko Legea da. Lege horretan xedatzen da euskara Euskal Herriko berezko hizkuntza dela eta herritar guztiek dutela eskubidea herri administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko. Ondorio bidez, herri aginteen betebeharrak xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin. Geroztik, 1989ko uztailaren 6ko 6/89 Legeak, Euskal Funtzio Publikoari buruzkoak, euskal herri administrazioetako lanpostuen zerrendetan jaso behar diren baldintzak eta betebeharrak xedatu zituen, euskaraz jakin beharreko lanpostuei buruz.

Aipatu ditugun lege horietan xedatutakoaren arauz, 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duenak, araubidezko marko orokorra ezarri zuen, euskal herri administrazioek euskararen erabileraren normalizazioaren eremuan egin beharreko lanari buruz. Lan horretan bete behar diren gutxieneko baldintzak, plangintzaldiak eta epeak arautzeaz gain, dekretuak bost urtealdirako planak egitera behartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioak, plan horietan jaso behar baitira, aldi bakoitzerako, dekretuak xedatzen dituen esparru guztietan aurreikusitako neurri guztiak.

Aipatutako 86/1997 Dekretuak 19. artikuluan xedatutakoa beteaz, erabaki honek euskararen erabilera normalizatzeko plana arautuko du Gipuzkoako Foru Aldundiaren jardura esparruan, 2013-2017 aldirako.

Bide horretan, erabaki honek osotasunean hartzen ditu 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak bere 18. artikuluan araututako xedapen eta neurri guztiak.

- I. kapituluak hizkuntza ofizialen erabilerari buruzko arau orokorrak jasotzen ditu, Foru Aldundiaren esparruaren barruan euskararen erabilerak izan behar duen trataeraz, bi hizkuntza ofizialen arteko benetako berdintasuna lortzeko, 2015erako zerbitzu guztiak euskaraz eskaintzeko xedeaz. Aldundiaren lan hizkuntza euskara izango da lehentasunez, urte luzeetan gaztelaniaz bakarrik lan egiteak sortzen duen desoreka berdintzeko asmoz. Horrekin batera, herritarrekin eta beste herri erakundeekin ahoz nahiz idatziz izan beharreko harremanen inguruko neurriak xedatzen dira, komunikazio instituzionalaren esparruko jardunbidea arautzen da, eta hizkuntza ofizialen erabileraren inguruko itzulpen irizpideak ematen dira.
- II. kapituluak, hizkuntza ofizialak erabiltzeko gutxienezko beharrezkoak ezartzen dira Foru Aldundiaren jardura esparruetan (besteak beste, kontratazio administratiboan, diru laguntzetan, jendaurreko ekitaldietan, argitalpenetan, tresna eta aplikazio informatikoetan, Internet eta intranet sareetan, hizkuntzaren paisaia gaitan, erregistroan, iragarkietan, eta publizitate ekintzetan). Kapitulu honen barnean jasotzen dira, alde batetik, 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuko 18.d) artikuluan xedatutako betekizunak; eta, bestetik, Bikain euskararen kalitate ziurtagiria eskuratzeko 2011n Foru Aldundiak izandako ebaluazioaren hobekuntza proposamenak.
- III. kapituluak xedatzen dira erabakian ezarritako neurriak kudeatzeko izango diren bitartekoak. Besteak beste, Aldundiak hizkuntza ofizialen alorrean egiten duen kudeaketaren ebaluazio sozial bat egiteko oinarriak jartzen dira.
- IV. kapituluak eta berari dagozkion lehen eta bigarren eranskinetan xedatzen dira, alde batetik, Gipuzkoako Foru Aldundiaren administrazio atalen izaera eta hizkuntza lehentasunak; eta, bestetik, lanpostuei atxikitako hizkuntza eskakizunetan eta derrigortasun datetan egin behar diren aldaketak, 86/1997 Dekretuko 18.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, eta, orobat, orain arte 2009ko urtarrilaren 27ko 3/2009 Foru Dekretuan jasotakoak. Esparru honetan ematen diren xedapenen indarrez, Aldundiaren lanpostuetara sartzen diren langile guztiek arauko hizkuntza eskakizuna egiaztaturik izango dutela bermatzen da. Gipuzkoako Foru Aldundiak bere jardura esparruetan ezartzen duen neurri multzo honen bitartez indartu nahi du euskararen erabilera bermatzeko jardunbidea. Alde batetik, 86/1997 Dekretuaren 11. artikulua xedatutakoaren arabera, Aldundiari %63,19 lanpostutan nahitaezko hizkuntza eskakizuna esleituta izatea dagokio. Aitortu beharra dago gutxienez bete beharreko indize horretan aurrerago dagoela Gipuzkoako Foru Aldundia, gaur egun bere lanpostuen %83,93tan baitu esleitua derrigorrezko hizkuntza eskakizun bat.

Kabia organismo autonomoa denez, 2014ko abenduaren 31n GAO-n argitaratutako Euskararen erabilera normalizatzeko planaren ezarpen eremuan dago.

## 1.2. 2015-2017KO GIPUZKOAKO ZERBITZUEN MAPA

2015-2017ko Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Mapak, Gipuzkoako errealitatera eramaten ditu Euskal Autonomia Erkidegoko 2015-2017ko Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoan ezarritako planifikazioko irizpideak, eta lurraldearen maila bakoitzean lortu beharreko estaldurak proposatzen ditu, bai udalaren eskumenekoak diren lehen mailako arretako gizarte zerbitzuetan eta baita foru eskumenekoak diren bigarren mailako arretako zerbitzuetan ere.

Kabiari dagokionez, Adineko eguneko zentroyen eta Adineko egoitza zentroyen lurraldea EREMU bezala definitutako da. Hori izango da derrigortasun indizea ezartzeko garaian erabiliko dena.

## 1.3. KABIA: ERATZEA ETA ESTATUTUAK

Kabiaren antolamenduarekin zerikusi zuzena duten ondorengo bi arau daude:

- 12/2014 FORU ARAUA, azaroaren 6koa, zeinaren bidez sortzen baita «Kabia» izeneko foru organismo autonomoa, gizarte zerbitzuak kudeatu, eman eta gauzatzeko.
- 46/2014 FORU DEKRETUA, abenduaren 22koa, «Kabia» Foru Organismo Autonomoaren Estatutuak onartzekoa

Foru Araueko 5.5. artikuluan zehazten den moduan, gobernu eta zuzendaritza organoetan, euskaraz aritu ahal izateko neurria zehazten da:

“Erakunde autonomoaren hizkuntza irizpideek bat egingo dute Gipuzkoako Foru Aldundian euskararen erabilera arautzen duen foru dekretuaren printzipioekin. Hori horrela, Kabia erakunde autonomoaren gobernu eta zuzendaritza organoei euskarazko funtzionamendua ahalbidetzeko, berrmatuko da Gobernu Junta osatuko duten kideek nahikotasunez ezagutzea euskara.”

## 2. KABIAKO EREDUA ZEHAZTEN

Aipatutakoari jarraikiz horrela zehaztu ditu administrazio atalen izaera eta hizkuntza lehentasunak:

Erakundea	Izaera		Derrigortasun indizea	Derrigortasun datak jartzeko lehentasunak
Kabia Zerbitzu zentralak	Orokorra	Euskarazko administrazio atala	% 63,19	konpromisoa: euskaraz lan egin eta zerbitzua emateko, lanpostu guztiei jarriko zaie derrigortasun data. %100
Azkoitiko Egoitza	Jendaurrekoa eta gizarte izaerakoa	Elebiduna	% 87,98	lehentasunen arabera
Elgoibarko Egoitza	Jendaurrekoa eta gizarte izaerakoa	Elebiduna	% 78,33	lehentasunen arabera
Villabonako Egoitza	Jendaurrekoa eta gizarte izaerakoa	Elebiduna	% 88,14	lehentasunen arabera
Zumaiako Egoitza	Jendaurrekoa eta gizarte izaerakoa	Elebiduna	% 85,33	lehentasunen arabera

### 2.1. IZAERA

#### A) Egoitzak: jendaurrekoa eta gizarte izaerakoa

86/1997ko Dekretuko 15. eta 16. artikuluek honakoa diote:

15. *atala*.- Administrazio-atal elebidunak eta euskarazko administrazio-atalak.

1.- Beren zereginak Euskal Autonomia Elkarteko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira administrazio-atal elebidunak.

2.- Beren zereginak batez ere euskaraz betetzen dituzten administrazio-atalak izango dira euskarazko administrazio-atalak. Administrazio-atal elebidunak eta, hala badagokie, euskaraz dihardutenak izango dira euskal herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planak finkatzeko oinarri eta euskarri. Ildo

horretatik, esparru horiexek izango dira euskararen erabilera normalizatzeko plangintza-sistemaren muin eta ardatz nagusi, eurak baitira, euskal herri-administrazioekin euskaraz harremanak izateko eskubidea bermatuta egon dadin, herritarrek dituzten gutxieneko antolamendu atalak. Administrazio-atal horietan, herri-administrazioetako bakoitzak mikroplanak eratzeko aukera izango du, jendaurreko zerbitzuak eskaini edo espedienteak tramitatzeko lanpostuak kontuan izanda eta lanpostu horien arteko harremanak eta erlazioak aintzat hartuta. Era horretara, ahalik eta modurik eraginkorrean erantzun ahal izango zaio herritarren aldetik zerbitzua euskaraz jasotzeko dagoen eskariari.

16. atala.- Dekretu honi dagokionez, honako era honetara sailkatuko dira administrazio-atalak:

- a) Jendaurreko atalak: beren zeregin nagusia, ahoz zein idatziz, administratuarekiko harremanetan oinarritzen denean.
- b) Gizarte-mailako atalak: herri-administrazioaren harreman-sareak oso nabarmenak eta bereziki gizarte mailakoak direnean.
- c) Atal orokorrak: beren zeregin nagusia batez ere administrazio barruko alorrean gertatzen denean.
- d) Atal bereziak: atal berezizat joko dira bitarteko eta baliabideak eskaintzen dituzten atal zein zerbitzuak. Gehienetan, eskuz egindako lanak burutzen dituzte, besteak beste, eraikinen mantenimendu- eta kontserbazio-lanetan, obra, garbiketa eta abarretan edo, bestela, lan teknikoak burutzen dituzte instalakuntza zein ekipoen, laboratorio eta antzekoen mantenimendueta kontserbazio-zereginetan.

## **b) Kabiako Zerbitzu Zentralak: Euskarazko administrazio atala.**

2014ko abenduaren 31n GAO n argitaratutako Euskararen erabilera normalizatzeko planak, lehenengo eranskinean, honela zehazten ditu euskarazko administrazio atalak.

### *2. Euskarazko administrazio atalen identifikazioa.*

Eranskin honen 1. puntuan azaldutakoa baztertu gabe, administrazio atal elebidun batek euskarazko administrazio atalaren izaera hartuko du, berariazko aitorten xedapenik behar izan gabe, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, langileen % 85ek lanpostuko hizkuntza eskakizuna egiaztatua badute eta arduradun teknikoak (atalburu edo zerbitzu buru) hirugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatua badu.

### *3. Administrazio atal guztientzako jarraibideak.*

Aldundiko administrazio atal bakoitzak euskararen erabilera sustatzeko plan zehatz bat egin behar du, lan eginkizunetan euskararen erabilera handitzeko helburuarekin eta, oro har, erabaki honetan ezartzen diren beharrezkoak betetzeko xedez, 18. artikuluan xedatutakoaren arabera. 2. Erabaki honen 20.1 artikulua xedatzen duen ordezkari arduraduna izendatzen duenean departamentu bakoitzak, hala jakinaraziko dio Euskara Zuzendaritza Nagusiari.

### *4. Euskarazko administrazio atalentzako jarraibideak.*

Aurretik aipatutako 86/1997 Dekretuko 15. artikulua xedatutakoa gogoan izanik, administrazio atal guztientzat emandako jarraibideez gain, euskarazko administrazio atalaren aitortzea dutenek puntu honetan xedatzen denaren arauz jokatu behar dute.

1. Herritarren harrera.

a) Harrera euskaraz egingo zaie herritarrei, bai aurrez aurrezko harremanetan, bai beste edozein bidez izaten diren harremanetan. Ondoren, herritarrak aukeratutako hizkuntza ofizialean emango zaio zerbitzua herritarrari.

b) Atal hauek harrera protokolo bat izango dute bertara lanera doazen langile berrientzat, laneko hizkuntza irizpideak argi azalduko diena.

c) Departamentu bakoitzak identifikatuko ditu, bere lanpostuen artean, herritarren harrera egiteko ardura duten lanpostuak, erabaki honen lehen xedapen gehigarriak ezarritakoaren arauz.

## 2. Harreman hizkuntza.

Harremanetan diren gainerako herri administrazioei jakinaraziko diete harreman ahozko zein idatziak euskaraz izan nahi dituztela.

## 3. Laneko hizkuntza.

a) Euskara izango da lan hizkuntza nagusia, bai laneko eginkizun idatzietan, bai ahozkoetan.

b) Euskara izango da atal hauetako laneko bileren hizkuntza. Bileren akta euskaraz jasoko da, eta aktaren jasotzailearen batek berariaz eskatzen duenean soilik itzuliko da gaztelaniara.

c) Euskarazko atal batetik Aldundiko beste zerbitzu batera doan dokumentazioa euskaraz sortu eta bidaliko da. Zerbitzu jasotzailearen ardura da bitartekoak behar bezala antolatzea agiri horiek euskaraz tramitatu ahal izateko, eta, behar denean, erantzuna euskaraz sortu eta bidaltzeko.

## 4. Laneko prestakuntza eta sustapena.

a) Atal hauetako langileek euskaraz jasoko dute laneko prestakuntza.

b) Atal hauetako lanpostu bat barne lehiaketaren bidez betetzeko lehiaketa deitzen denean, gutxienez azterketetako bat euskaraz egingo da.

## 5. Kontratazio administratiboa.

a) Atal hauek sustatutako kontratazioetan, kontratazio mahaiaren bilerak euskaraz izango dira. Hala ere, beti bermatuko da lizitatzailleek informazioa bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jasotzeko duten eskubidea.

b) Kontratazioa esleitzen denean, kontratatutako enpresaren eta atal hauen artean sortzen diren harreman ahozko zein idatziak euskaraz izango dira lehentasunez.

## 6. Aplikazio informatikoak.

a) Euskarazko administrazio atalek solaskide elebidun bat izendatzeko eskatuko diote informatika zerbitzuen enpresa hornitzaileari.

b) Aplikazio berriak euskaraz sortuko dira hastapenetik. Besteak beste, erabiltzaile liburuak euskaraz egongo dira idatzita.

c) Aplikazio berri guztiak prestatuta egongo dira emaitza dokumentalak euskaraz sortzeko.

d) Euskarazko administrazio atal hauetan, aplikazio bereziaketa orokorrak euskaraz erabiliko dira.

## 7. Normalizazio, berrikuntza eta informazio tresnak.

Euskarazko administrazio atalek lehentasuna izango dute berariazko hizkuntza trebakuntza eta Aldundiaren itzulpen zerbitzuak jasotzeko garaian.

a) Edonola ere, langile bat ez da sekula urte bat baino gehiago arituko banan-banako hizkuntza trebakuntzan. Langile batek aldi hori baino denbora gehiagoko trebakuntza behar izango badu, beste tresnak erabiliko dira (euskaltegietako talde arruntak, Aldundiaren prestakuntza planeko ikastaroak, taldekako trebakuntza, eta abar).

b) Atal hauek lehentasuna izango dute hizkuntza kudeaketa hobetzeko, ikerketa edo berrikuntza izaera duten proiektuak garatzeko garaian.

c) Aldundiko Intranetean informazio kanal bat jarriko da, zein administrazio atal diren euskarazkoak agerian egon dadin. Era berean, Aldundiko langileak identifikatzeko erabiltzen

diren informazi euskarrietan (hala nola, telefonoen zerrenda) euskarazko ataletan ari diren langileak zein diren jakinaraziko da.

#### 8. Prestakuntza berezia.

Euskarazko ataletako lanpostuetan ari diren langileek prestakuntza berezia jasoko dute, hizkuntzaren kudeaketa eta ahalmentzearen alorretan.

## 2.2. DERRIGORTASUN INDIZEA

Hizkuntza gaitasunari dagokionez, Kabiako langile propioak eta enpresak subrogatutako langileak hartu behar baldin baditu, eta horiek eskatutako baldintzak beteko ez balituzte, plan bat egin behar du langile horien prestakuntza planifikatzeko. Planifikazio hori egiteko lagungarri izango da euskarazko indizea erabiltzea. Hori egiteko bi gauza hartu ditugu kontuan:

- Batetik, 86/1997ko Dekretuko 11. atala: Euskaldunak+ (ia euskaldunak/2)

11. atala.-

1.- Administrazio bakoitzean eta plangintzaldi bakoitzean, derrigorrez bete beharreko indizeak ezarriko du zein den derrigorrezko eskakizunen portzentaia, alegia, lanpostu-kopuru osoa aintzat hartuta, zenbat lanpostuk izan behar duten izendatuta derrigorrezko hizkuntz eskakizuna.

2.- Euskal Autonomia Elkarteke biztanleen euskararen ezagutzari buruz Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan eta, hala badagokio, datu horiek egiaztatzeke taula orokorretan jasotako informazioa kontuan hartuta, derrigorrez bete beharreko indizea, ondorengo era honetara finkatuko da: Euskaldunak + (ia Euskaldunak/2).

3.- Plangintzaldi bakoitzerako indizea finkatzeko, plangintzaldia hasten denerako indarrean dagoen Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako azken datuak erabiliko dira, beti ere, herri-administrazio bakoitzari dagokion jarduera-esparrua kontuan hartuta.

- Bestetik, 2015-2017ko Gipuzkoako gizarte zerbitzuen maparen arabera Foru eskumeneko adinekoentzako egoitza zentroak Eremuen arabera egokitzen dira. Hori horrela, Eremukako hizkuntza ezagutza datuak hartuko dira kontuan. Herrietako hizkuntza gaitasuna Eremukakoa baino handiagoa denetan, ordea dagokion herriko derrigortasun data hartuko da kontuan.

Sektorea	Eskualdea	Eremua	Oinarrizko zonaldeen proposamena	derrigortasun indizea %
Ekialdea	Bidasoa	Bidasoa % 58,68	Hondarribia	70,65
			Irun	46,71
	Donostialdea	Buruntzaldea % 65,13	Andoain	60,75
			Urnieta	63,41
			Hernani	66,04
			Astigarraga	71,03
			Lasarte-Oria	51,52
			Usurbil	78,07
			Donostia A % 57,74	Parte Zaharra
			Erdigunea	57,74
		Donostia B % 52,02	Amara Berri,	53,95
			Amara Zaharra	
			Loiola	50,18
			Martutene	51,94
		Donostia C % 67,81	Antiguo,	61,13
			Añorga	69,95
			Aiete	57,41
			Ibaeta	61,13
			Igeldo	74,86
			Zubieta	82,43
	Donostia D % 44,17	Altza,	41,75	
		Bidebieta	46,59	
		Herrera		
	Donostia E % 52,64	Gros,	53,32	
		Egia	49,90	
		Ulia	55,51	
		Intxaurren	51,83	
Oarsoadea % 60,87	Errenteria	47,09		
	Oiartzun	80,47		
	Pasaia	49,95		
	Lezo	66		
Debagoiena	Bergaraldea %80,24	Antzuola	80,07	
		Elgeta	84,35	
		Leintz Gatzaga	80,54	
		Bergara	76	
	Leintz Ibarra % 71,56	Arrasate	64,29	
		Aretxabaleta	71,91	
		Eskoriatza	66,89	
		Oñati	83,17	
	Deba Erdia %64,86	Eibar	61,63	
		Soraluze	68,09	
	Deba Kosta % 78,33	Elgoibar	67,61	
		Mendaro	76,13	
		Deba	81,15	
		Mutriku	88,44	
			Azkoitia	83,66





Mendebaldea	Urola Kosta	Iraurgi % 87,98	Azpeitia	89,56					
			Aizarnazabal	90,22					
			Zestoa	88,49					
		Urola Kostaldea % 85,33			Orio	84,56			
					Aia	92,82			
					Zarautz	78,48			
					Getaria	91,20			
	Zumaia				79,59				
	Goierri	Urola Garaia % 61,78		Legazpi	65,73				
				Urretxu	64,75				
				Zumarraga	54,88				
		Oria Garaia %84,04			Beasain	66,30			
					Ordizia	68,62			
					Idiazabal	87,52			
					Mutiloa	89,21			
					Segura	87,55			
					Zegama	88,55			
					Zerain	94,12			
					Lazkao	70,02			
					Olaberría	62,25			
					Ataun	92,97			
					Altzaga	88,19			
					Arama	90,91			
					Itsasondo	82,75			
					Gaintza	97,69			
					Legorreta	76,79			
					Zaldibia	88,84			
					Gabiria	93,41			
					Ormaiztegi	81,51			
					Ezkio-Itsaso	89,74			
					Tolosaldea			Tolosa	75,05
								Aduna	88,17
Asteasu								85,88	
Alkiza								90,57	
Larraul								89,69	
Zizurkil	73,06								
Villabona	75,09								
Ibarra	74,72								
Elduain	93,46								
Gaztelu	91,47								
Belauntza	86,60								
Berrobi	83,94								
Berastegi	92,74								
Leaburu	89,21								
Lizartza	90,85								
Orexa	95,50								
Amezketá	95,86								
Abaltzizketa	95,33								
Altzo	90,97								

			Alegia	87,08
			Orendain	93,52
			Baliarrain	95,88
			Ikaztegieta	87,20
			Anoeta	78,77
			Hernalde	88,46
			Irura	83,19
			Albiztur	92,29
			Beizama	94,05
			Bidania-Goiatz	91,48
			Errezil	94,41

kuadro honetako koloreen azalpena:

**Berdez:** GFAk 2015ean hartuko dituen egoitzak kokatuta dauden herriak

Eremuko datuak zein diren ikusita kontratatu behar diren lau egoitzeko derrigortasun indizeak horrela geratzen dira.

#### Azkoitia

SEKTOREA	ESKUALDEAK	EREMUAK	OINARRIZKO ZONALDEEN PROPOSAMENA	derrigortasun indizea %
Mendebaldea	Urola Kosta	Iraurgi % 87,98	Azkoitia	83,66
			Azpeitia	89,56
			Aizarnazabal	90,22
			Zestoa	88,49

#### Elgoibar

SEKTOREA	ESKUALDEAK	EREMUAK	OINARRIZKO ZONALDEEN PROPOSAMENA	derrigortasun indizea %
Mendebaldea	Debagoiena	Deba Kosta % 78,33	Elgoibar	67,61
			Mendaro	76,13
			Deba	81,15
			Mutriku	88,44

#### Villabona

SEKTOREA	ESKUALDEAK	EREMUAK	OINARRIZKO ZONALDEEN PROPOSAMENA	derrigortasun indizea %
			Tolosa	75,05
			Aduna	88,17
			Asteasu	85,88
			Alkiza	90,57
			Larraul	89,69
			Zizurkil	73,06
			Villabona	75,09
			Ibarra	74,72
			Elduain	93,46

Mendebaldea	Tolosaldea	Tolosaldea %88,14	Gaztelu	91,47
			Belauntza	86,60
			Berrobi	83,94
			Berastegi	92,74
			Leaburu	89,21
			Lizartza	90,85
			Orexa	95,50
			Amezketeta	95,86
			Abaltzizketa	95,33
			Altzo	90,97
			Alegia	87,08
			Orendain	93,52
			Baliarrain	95,88
			Ikaztegieta	87,20
			Anoeta	78,77
			Hernialde	88,46
			Irura	83,19
Albiztur	92,29			
Beizama	94,05			
Bidania-Goiatz	91,48			
Errezil	94,41			

### Zumaia

SEKTOREA	ESKUALDEAK	EREMUAK	OINARRIZKO ZONALDEEN PROPOSAMENA	derrigortasun indizea %
Mendebaldea	Urola Kostaldea	Urola Kostaldea % 85,33	Orio	84,56
			Aia	92,82
			Zarautz	78,48
			Getaria	91,20
			Zumaia	79,59

### 2.3. LANPOSTUEN EUSKARA MAILA

Hori guztia kontuan hartuta hona langileak hautatzeko kontuan hartu beharreko irizpideak, betiere GFAko langileen hautaketarako irizpideetan oinarrituta.

Gizarte Politikako Departamentuak, DACOPER<sup>1</sup> tresnaren bitartez (txantiloia komuna), Gipuzkoako egoitzei buruzko informazio ekonomikoa eta langileei buruzkoa jasotzen du. Dokumentu horretan, Kabiak bere gain hartuko dituen 16 egoitzetako informazioa jasotzen da. Beraz, ikuspegi bateratzaile bat eskuratzeko baliagarria da.

DACOPER-etik zehazten den lanpostuen sailkapenean oinarrituta, lanpostuei dagozkien hizkuntza eskakizunen proposamena honela geratuko litzateke. Lanpostuak egoitza bakarrean agertzen direnean (adibidez, etxekoandrea), ez dira kontuan izan.

<sup>1</sup> Dossier Automático de Costes de Servicio y de Plantilla de personal

	Maila	H.E.	European Framework <sup>2</sup>
<b>ASISTENTZIAZKOA / ASISTENCIAL</b>			
Arreta laguntzailea / Auxiliar asistencial	D	2.HE	B2
Jangela laguntzailea / Auxiliar de comedor	E	2.HE	B2
Atal burura / Responsable de Sección		3.HE	C1
Gobernatzailea / Gobernanta-e	D/C	2.HE	B2
Erizaina edo EUD / Enfermera o DUE	B	3.HE	C1
Mediku orokorra / Médico-a general	A	3.HE	C1
Mediku espezialista / Médico-a especialista	A	3.HE	C1
Zereginen monitorea / Monitor-a ocupacional		3.HE	C1
Monitorea / Monitor-a		3.HE	C1
Fisioterapeuta / Fisioterapeuta	A	3.HE	C1
Gizarte laguntzailea / Asistente Social	B	3.HE	C1
Psikologoa / Psicólogo	A	3.HE	C1
Psikiatra / Psiquiatra	A	3.HE	C1
<b>KUDEAKETA / GESTIÓN</b>			
Zuzendaria / Director-a	A/B	3.HE/4.HE	C1/C2
Zuzendari teknikoa / Director-a técnico-a	A/B	3.HE	C1
Koordinatzailea / Coordinador-a	C/B	3.HE	C1
Administratzailea / Administrador-a	C	3.HE	C1
Administraria / Administrativo-a	C	3.HE	C1
<b>EZ ASISTENTZIAZKOA / NO ASISTENCIAL</b>			
Harrera. / Recepción	D	2.HE	B2
Atezaina / Conserje	E	2.HE	B2
Mantenimendua / Mantenimiento	C/D	1.HE	B2
Gidaria / Conductor-a	D	2.HE	B2
Podologoa / Podólogo-a	B	2.HE	B2
Ile apaintzailea / Peluquero-a		2.HE	B2
Farmazialaria / Farmacéutico-a	A	3.HE	C1
<b>BESTE LANGILE BATZUK / OTRO PERSONAL</b>			
Garbiketa / Limpieza	D/E	1.HE	B1
Ikuztegia / Lavandería	D/E	1.HE	B1
Sukaldea / Cocina	D/E	1.HE	B1
Zerbitzaria / Camarero-a	D/E	2.HE	B2

<sup>2</sup> [http://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca\\_ele/marco/](http://cvc.cervantes.es/ensenanza/biblioteca_ele/marco/)  
[http://www.habe.euskadi.eus/s23-4728/eu/contenidos/informacion/tituluen\\_baliokidetza/eu\\_titbalio/tituluen\\_baliokidetza.html](http://www.habe.euskadi.eus/s23-4728/eu/contenidos/informacion/tituluen_baliokidetza/eu_titbalio/tituluen_baliokidetza.html)

Subrogatutakoez gain, langile berriak hartu beharko balira, zehaztu beharko litzateke langile berri horiek guztiek izango dutela sartu aurretik egiaztatua dagokien hizkuntza maila.

Azkenik, Derrigortasun datak eta lanpostuetako hizkuntza maila zein den kontuan hartuta langileen prestakuntzari begira, honako lehentasunak proposatzen dira:

## 2.4. LEHENTASUNAK

Lehentasunak ezartzeko garaian, “egoiliarren arreta” izan da oinarria; alegia, egoiliarren hizkuntza eskubideak errespetatzearen irizpidea hartu da abiapuntutzat; ondorioz, egoiliarrekin harreman zuzena duten lanpostuetan ezarri da lehentasun maila altua.

Bestetik, Kabiako Zerbitzu Zentralak Euskara Atal moduan definitu direnez, egoitzetako zerbitzu administratiboek lehen mailako lehentasuna eman zaie ere bai.

- **Lehenengo lehentasun maila:** egoiliarrei arreta, familiari arreta eta zerbitzu administratiboa (jendaurreko izaera eta izaera orokorra):
  - o Egoiliarren arreta zuzena: sendagileak, erizainak, zaintzaileak, fisioterapeutak, monitoreak,...
  - o zerbitzu administratiboak: KABIako Zerbitzu Zentralak eta Egoitzetako zerbitzu administratiboa
- **Bigarren lehentasun maila:** ostalaritza eta zerbitzu orokorrak (sukalde, mantenu eta garbikuntza lanak).